

# Atlantidako itsasargia


Atlantidako zibilizazio aurreratua olatuen azpian desagertu zen antzinako greziarren garaia baino lehen. Kondairak dioenez, harekin batera jakintza handia galdu zen, inoiz berreskuratuko ez dena. Baina, beharbada, ez dira gaitasun haiek guztiak desagertu. Nola azaldu dezakezu, bestela, kandela batek ur azpian ere piztuta irautea? Handik behetik datorren mezuren bat izan behar du.

## ↓ BEHARKO DUZU

- Nahaste-ontzi txiki bat (gardena, ahal dela)
- Kandela bat (katiluaren altuera berekoa)
- Pospoloak
- Ura

## 🔍 METODOA

1. Berotu kandelaren oinarria eta finkatu ondo nahaste-ontziaren barruan, erdigunean.
2. Kontu handiz, bete ontzia urez, kandelaren ertzeraino.



3. Piztu kandela eta begiratu.
4. Kandelaren metxa erre egiten da, baita ur-mailatik behera ere, eta argizarizko tximinia bat eratzen da haren inguruan.
5. Sugarrak, tximiniak babestuta, erretzen jarraitzen du denbora batez ur-mailatik behera.



### **ZIENTZIA-AITZAKIA**

Gatzak uraren izozte-tenperatura jaisten du (horregatik, neguan, gatzak botatzen da errepideetan). Kasu honetan, gatzak koskorraren gainaldeko izotza urtarazten du. Soka lehorrak ur gazia xurgatzen du; hartara, koskorraren gainaldeko ura berriro izozten da. Kasu honetan, ordea, soka-zati bat harrapatuta geratu da du izotz-geruza berriaren azpian.



### **KONTUZ!**

Sokaren muturrak kontu handiz igo behar dira; azkar tiratuz gero soka, ziurrenik, askatu egingo da bera babesten duen izotz-geruzatik.